



FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUAREN LEGE-AURREPROIEKTUA

Zioen azalpena

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eskumen eskusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari bere autogobernu-erakundeen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua (10.2 artikulua), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren beraren sektore publikoa ere (10.24 artikulua), eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren garapena eta jarduera ekonomikoaren plangintza sustatzea (10.25 artikulua).

Eskumen-titulu horiek baliatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarriak Finantzen Euskal Institutua sortu zuen, Euskadiko Administrazio Publikoaren finantza-politika eta kreditu publikokoa berrantolatzeke, haren finantza-baliabideak arrazionalizatzeko eta optimizatzeko eta, azken batean, Euskal Autonomia Erkidegoko finantza-sistema publikoaren sendotasuna handitzeko.

Finantzen Euskal Institutua sortu zenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren erakunde-sailkapenak eskainitako aukeren artean (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauerei buruzko Legearen Testu Bateginaren 7. artikulua), zuzenbide pribatuko ente publikoaren figura aukeratu zen, haren eskumeneko jarduerak egitea izango baitzen haren xedea, deszentralizazio-erregimenean. Jarduera horiek, funtsean, zuzenbide pribatuaren mende zeuden (aipatutako lege-testuaren 15. artikulua), eta halaxe gertatzen zen entitate horretarako aurreikusitako eginkizunekin, batez ere finantza-merkatuen jarduerarekin lotuta.

Finantzen Euskal Institutua 2009ko urtarrilaren 1ean hasi zen jardunean, eta, haren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren finantzaketa-tresnak optimizatu nahi ziren, garai hartan zeuden finantza-tresna publiko edo parapublikoekin (inbertsio-sozietateak, elkarren bermerako sozietateak, partaidetza-kredituen sozietateak, enpresak sustatzeko sozietateak, funts estrategikoak, etab.) argi eta garbi sinergikoa zen ikusmolde moderno batetik abiatuta. Izan ere, tresna horiek ugartu egin zirenez, politika bateratua, eraginkorra, efizientea eta gardena behar zuten.

Urte batzuetan, Euskal Autonomia Erkidegoan zientzia- eta teknologia-inbertsioak egiteko programari dagozkion maileguak emateko partaidetzara mugatu zen Institutuaren jarduera, baina 2013tik aurrera, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko finantza-ekintzako tresnak bultzatu nahi izan ditu, bereziki, Finantzen Euskal Institutua indartuz eta finantzaketa publikoko tresnen kudeaketa erakartzuz.

Horretarako, sozietateak berrantolatzeari ekin zitzaion, Finantzen Euskal Institutuaren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoak finantza-izaera eskusiboko finantza-tresnen eta sozietate-partaidetzen multzoa zentralizatzeko, biltzeko eta arrazionalizatzeko helburuarekin. Euskal Autonomia Erkidegoak, funtsean, ekonomia-sustapeneko politika gauzatzeko zituen



tresna horiek guztiak. Horrela, erabateko zentzua eman zitzaion Institutua sortu zenean zituen eginkizunei, eta Euskal Administrazio Publikoaren finantza-kudeaketa hobetzea eta optimizatzea lortu nahi zen. Hitz gutxitan, Finantzen Euskal Institutuan kontzentratu nahi ziren Administrazioaren partaidetzak garai hartan sakabanatuta zeuden eta Euskal Autonomia Erkidegoko politika publikoen finantza-instrumentazioarekin lotuta zeuden entitateetan (kredituak, abalak, arrisku-kapitaleko funtsetako partaidetzak, etab.), eta Finantzen Euskal Institutua berrantolatzeko prozesuarekin jarraitu nahi zen, finantzaketa publikoko tresnen kudeaketa bere gain hartuz, Finantzen Euskal Institutua ente publikoak Administrazioaren finantza- eta kreditu-agentzia gisa egiten zuen jardueran sendotzeko.

Prozesu horren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko finantza-politikaren eta kreditu publikoko politikaren egituraketari buruzko azterlan bat egin zen. Azterlan horren amaieran, 2018ko uztailean, finantza-tresna publikoak arrazionalizatzeko proiektua aurkeztu zen, Eusko Jaurlaritzaren finantza-politikaren antolamendu berri baterako. Proiektu hori finantza-tresnak arrazionalizatzeraz eta Eusko Jaurlaritzak definitutako eta sail eskudunek garatutako eta inplementatutako plan eta programa sektorial estrategikoen garapena erraztera bideratuta dago. Proiektu horren bidez, antolaketa- eta erakunde-esparru koordinatua eta espezializatua ezarri nahi zen, eta esku hartzeko hiru tresna motak -kapitala, bermea eta mailegua- modu optimoan antolatu nahi ziren, enpresen beharren arabera, tamainaren eta garapen-fasearen arabera.

Finantzen Euskal Institutuaren jardueraren bilakaerari buruz azken urteotan (2013tik 2018ra) egindako hausnarketan ondorioz, eta aurrekontu-egonkortasunaren, iraunkortasunaren eta finantza-zuhertasunaren printzipioak (abalen eta bermeen muga) betetzeko administrazio publiko guztietan organo espezializatuak ezartzeko beharraren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren finantza-politikak garrantzi handia hartu zuen, politika publiko substantibo eta gainerako politika sektorialekiko autonomo bihurtuta, baina jarduera ekonomiko publikoan esku hartzeko arau propioekin, halako moldez non, sailen politika batzuk finantza-arloan antolatzeaz gain, finantza-jardueren eredu espezifikokoak ezartzen diren, finantza-baliabideen erabilera eremu espezializatuagoetan maximizatzeko (funts publiko-pribatuak, elkarrekiko bermearen edo partaidetza-maileguen arloko jarduketak, eta abar), eta, aldi berean, Europako erakundeek ezartzen dituzten eta Estatuarekin berarekin ituntzen diren finantza-diziplinaren arauak kontrolatzeko; hori guztia, finantza-politikak politika ekonomiko publikoa hobetzen ere lagun dezan eta aurrekontu-jarduera finantzarioak bidera ditzan (aurrekontuaren VIII. eta IX. kapituluak), aurrerapen publikorako tresnak kudeatuz eta erraztuz.

Aldi berean, Finantzen Euskal Institutuaren jarduna esku hartzeko hiru tresna mota nagusietara (mailegua, bermea eta kapitala) mugatzean, dagoeneko ez du zentzurik sortze-arauan jasotako eginkizunak esleitzeak, hala nola diruzaintzako eta finantza-kudeaketako zerbitzuak ematea eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eta haren mendeko entitateen zorpetzea; funtzio horiek guztiak administrazio-izaerakoak dira, eta entek ez zituen inoiz egikaritu bere funtzionamendu-urteetan, eta, gainera, Eusko Jaurlaritzaren finantza-politikaren eta kreditu publikoko politikaren antolamendu berrian Institutuari eman nahi zaion zeregin nagusitik kanpo geratzen dira.

Ildo beretik, kapitalari lotutako finantzaketa-tresna berriak aktibatu ziren, EAEko enpresak hazten eta finkatzen laguntzeko, hala nola funts berri bat, parte-hartze publikoa eta kudeaketa pribatua eta independentea dituen hazkunde-fasean dauden ETEentzat, 2019an sortua, edo Finkatuz funtsa, Finantzen Euskal Institutuak kudeatua «Finkatze Kapitala Finkatuz SAU» sozietate publikoaren bidez, zeina 2021ean eratu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko

enpresa handietan parte hartzeko tresna gisa, enpresa horiek EAEn errotuta jarrai dezaten eta EAEko ekoizpen-sare osoaren trakzio-izaera izan dezaten bermatzeko.

Finantza-antolamenduko eredu berria ezarrita, beraz, Finantzen Euskal Institutuak Eusko Jaurlaritzaren jarraibideekin bat datorren finantza-jarduera sustatu eta ezarri behar du, hiru jarduera garatuz: lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren finantza-partaidetzak finantza-arloko funts eta sozietateetan edukitzea; bigarrenik, Eusko Jaurlaritzaren politika sektorialeki lotuta beharrezkoak diren finantza-tresnak kudeatzea, finantzaketa bideratuz sailek identifikatutako behar eta jardueretara; eta, hirugarrenik, kreditu-jarduera eragiketa espezifikoa kontzentratzea, finantza-erakundeekin batera inbertitzeko estrategiei jarraiki. Azken misio hori, gainera, bat dator Finantzen Euskal Institutuari buruz Eusko Jaurlaritzaren entitate espezializatu gisa izan behar duen ikuskerarekin, Euskadin jarduten duten finantza-erakundeekin harremanak izateko eta sektore-politikak garatzen laguntzeko izaera horretako araudiak ahalbidetzen dizkien finantza-formulekin.

Aurrekari horietatik guztietatik ondoriozta daitekeenez, Eusko Jaurlaritzak finantzaketa-tresna publiko eta erdipubliko ugari ditu, eta arreta berezia eskaintzen dio Finantzen Euskal Institutuari. Jakina, jarduera eta ekimen horietako gehienak politika publiko sektorialak gauzatzeaz arduratzen diren sail, erakunde eta entitateen ezinbesteko parte-hartzearekin gauzatu dira, batez ere industria-sustapenera eta garapen ekonomikora bideratutakoekin. Izan ere, politika horien finantza-tresnen beharrak konpontzen saiatu dira, eta, aldi berean, beste batzuk sortu eta partekatu dituzte, endogenoak, Institutuak berak.

Finantza-merkatua gero eta sofistikatuagoa denez, herri-administrazioek erabili ohi dituzten finantza- eta sustapen-tresnak gero eta konplexuagoak dira, eta, horren ondorioz, arlo horretan espezializazio handiagoa behar da. Ildo horretan, zuzenean Administrazioaren mende dagoen entitate bat egoteak lagundu egin dezake gaur egun jardun publikorako hain garrantzitsua den eremu zehatz horretako ezagutza eta espezializazioa metatzen; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren finantza-politikari eta kreditu publikoko politikari malgutasun eta koherentzia handiagoa ematea ahalbidetuko du, bai eta finantzaketa- eta partaidetza-tresna publikoak Eusko Jaurlaritzaren politika sektorialak garatzeko palanka gisa erabiltzea ere.

Legegintzaldi honen hasieran, eta finantza-antolamenduko eredu berri honen lagungarri gisa, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak), 9.1.e) artikuluan, Ekonomia eta Ogasun Sailari esleitzen dio, "kredituaren antolamendua, finantza-politika eta finantza-erakundeekiko harremanak", aurreko legegintzaldietan bezala, eta, era berean, berariaz, "EAEko finantzaketa eta partaidetza publikoko tresna publikoen kudeaketa euskal sektore ekonomikoetan" ere.

Beraz, Institutua sortu eta abian jarri zenetik hamalau urte inguru igaro direnez, beharrezkotzat eta egokitzat jotzen da hari buruzko araudi espezifikoa bat izatea, Finantzen Euskal Institutuaren lege integral bat, haren erregulazioa Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate ekonomiko eta arauemaile berrira egokituko duena, bai eta ente horrek Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen finantza-politikaren eta kreditu publikoko politikaren tresna gisa hartu behar duen zereginera ere, Euskal Autonomia Erkidegoak euskal sektore ekonomikoetan finantzaketa eta parte-hartze publikoa izateko dituen tresna publikoak kudeatuz, eta Eusko Jaurlaritzak egindako azterlan eta hausnarketan ondoren ateratako ondorioak oinarri hartuta.

Egoera berri honetan, azken batean, Finantzen Euskal Institutuak funtsezko eginkizuna bete behar du, eta entitate giltzarria izango da aurrez azaldutako helburuak lortzeko planteatutako jarduerak abian jarri eta gauzatuko dituena. Eta, Finantzen Euskal Institutuak Eusko Jaurlaritzaren finantza-politikan izan behar duen rol nagusia identifikatzearen ondorioz, aitortzen da beharrezkoa dela hura berrantolatzea, esparru berriarekin bat etorriz, eta araudi erregulatzailer espesifikoa berrikustea, enteari esleitutako eginkizunak eta eskumenak garatu ahal izateko.

Beraz, Finantzen Euskal Institutuak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen finantza-politikaren eta kreditu publikoko politikaren tresna nagusia denez, beharrezko kudeaketa-autonomia izan behar du eta kudeaketa profesionaleko irizpideak erabili behar du, merkatuko ekoizle baten berezko finantza-jasangarritasunaren printzipioak erabat errespetatuz. Hala ere, Finantzen Euskal Institutuaren jarduna, bere eginkizunak betetzean, Eusko Jaurlaritzak edo atxikita dagoen sailak finantza-politikari eta kreditu publikoko politikari dagokienez ezartzen dituen jarraibide orokorretara egokitu behar du.

Era berean, entea berrantolatzeko, bere antolaketa-egitura egokitu behar du, bere eginkizunak betetzeko behar dituen baliabideak izan ditzan. Antolaketa-egitura hori Institutuaren etorkizuneko estatutuen bidez osatu behar du, eta estatutu horiek honako hauek garatuko dituzte: gobernu-organoen eginkizunak, osaera eta izendapena, entearen zerbitzuen egitura organikoa eta funtzionala eta funtzionamendu-araubidea.

Hala ere, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legea indarrean jartzeak (zeinaren xedea baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren antolamendua eta funtzionamendua arautzea, bai eta haren dimentsionamenduari eta eraldaketari, eta zerbitzu publiko gisa eta herritarrekiko harremanean duen funtzionamenduari aplikatu beharreko arauak eta printzipioak ezartzea ere) berekin ekarri du Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren III. titulua (antolamendu instituzionalari buruzkoa) indargabetzea, eta haren ordezkari lege berri honetan jasotako erregulazioa jartzea; zuzenbide pribatuko ente publikoei dagokienez, erregulazio berri hori ez da asko aldatzen.

Kasu honetan, gainera, nahiz eta funtzioen esleipena berrantolatu nahi den, zeina Finantzen Euskal Institutuari esleitu baitzitzaion hura sortu zuen lege-xedapenean, berrantolaketa horrek ez du esan nahi Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko hainbat entitatek parte hartuko dutenik, dela eraldatzeko edo azkentzeko moduan; izan ere, Institutuaren helburuen, jarduteko printzipioen eta funtzioen formulazio berri batera mugatzen da funtsean, baina horrek ez du entitatearen izaera juridikoa aldatzen, zuzenbide pribatuko ente publiko gisa, ez eta, oro har, hari aplikatu beharreko araubide juridikoan ere.

Adierazi den bezala, entitate horren eginkizunen esleipena berrantolatzeko aukera, ez hura eraldatzeko edo berregituratzeko aukera, hausnarketa-prozesu luze eta mamitu baten ondorioz sortu da. Prozesu horrek, halaber, gure ogasunari Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia- eta finantza-politika gauzatzeko tresna bat ematea komeni dela balioetsi du.

Ondorio horietarako, hala ere, xedapen hau Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legean aurreikusitako lege-aginduetara egokitu da, bai zuzenbide pribatuko ente publikoen konfigurazio juridikoari dagokionez, bai horrelako entitateak eratze arauak izan behar duen gutxieneko edukari dagokionez.

Azken batean, lortu nahi diren helburuetara hobekien egokitzen diren erregulazio-aukerak kontuan hartuta, bai eta aurrekariak eta gaur egun indarrean dagoen araubide juridikoa ere, lege honen edukiak hamar artikulua ditu, honako hauei buruzkoak: Finantzen Euskal Institutuaren izaera, atxikipena, egoitza eta araubide juridikoa; jarduteko helburu eta printzipioak eta funtzioak; gobernu-organak eta egitura organikoa; gobernu-organoen eginkizunak, osaera eta izendapena garatuko dituzten estatutuak; entearen zerbitzuen egitura organikoa eta funtzionala eta funtzionamendu-araubidea; langileen araubidea; baliabide ekonomikoak eta Institutuaren ondarea; ekonomia- eta finantza-araubidea, eta, hala badagokio, azkendu eta likidatzea.

Azken zatian, xedapen gehigarri bakarria jasotzen du, entitatearen berregituraketei buruzkoa, haren izaera eta helburuak aldatzen ez badituzte; xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen, estatutuak onartzeari eta araua indarrean sartzeari buruzkoak.

1. artikulua.- Izaera, atxikipena, egoitza eta araubide juridikoa.

1. Finantzen Euskal Institutua zuzenbide pribatuko ente publikoa da, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa ditu bere helburuak eta eginkizunak betetzeko, eta finantzen eta finantza-politikaren arloan eskumena duen sailari atxikita dago, sail horretako titularraren bidez.

2. Egoitza nagusia Bilboko udalerrian du, hargatik eragotzi gabe Administrazio Kontseiluak zehazten dituen lurralde-eremuetan beste bulego batzuk ezartzea.

3. Lege honetan xedatutakoak, zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikatu beharreko araudiak eta bere estatutuek arautuko dute. Zuzenbide pribatuak arautuko du hirugarrenetik harremanetan eta haien jarduera garatzean, eta, zehazki, finantzaketa emateko eragiketetan.

4. Hala ere, administrazio-zuzenbidearen mende egongo da administrazio-ahalak baliatzean, barne-harremanetan eta antolaketa-harremanetan, barne-funtzionamenduan, organoen borondatea eratzean eta gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloan eratorritako betebeharretan, bai eta zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikatu dakizkiekeen xedapen orokorrek araututako gaietan ere.

5. Bereziki, administrazio-zuzenbidearen mende egongo dira ordenamendu juridiko administratiboko lege baten mende emandako egintzak, lege horren aplikazio-eremuan zuzenbide pribatuko ente publikoak sartzeko badira, eta, zehazki, Finantzen Euskal Institutuko organo eskudunek kontratazioaren arloan eta gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloan emandako egintzak.

2. artikulua.- Helburuak eta jarduteko printzipioak.

1. Finantzen Euskal Institutuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen finantza-politikako eta kreditu publikoko tresna gisa jardutea, Euskal Autonomia Erkidegoak euskal sektore ekonomikoetan finantzaketarako eta partaidetza publikorako dituen tresna publikoak kudeatuz.

2. Finantzen Euskal Institutuak, bere helburuak eta agindutako eginkizunak betetzean, printzipio hauek bete beharko ditu: legezotasuna, objektibotasuna, gardentasuna,

publikotasuna, eraginkortasuna eta efizientzia, lankidetzeta eta leialtasun instituzionala, arrazionaltasun ekonomiko-finantzarioa, interes orokorra eta soziala, eta kudeaketa ona. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamendua eta herritarrekiko interakzioa gidatzen duten gainerako printzipioak bete beharko ditu.

Era berean, Finantzen Euskal Institutuak kudeaketa-autonomiaz garatuko ditu bere eginkizunak, merkatuko ekoizle baten berezko finantza-jasangarritasunaren printzipioak errespetatuz, eta ondasun komunera eta interes orokorrera bideratutako helburuen arabera kudeaketa profesionaleko eta kudeaketako irizpideak erabiliz, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunaren printzipioen arabera.

3. Finantzen Euskal Institutuaren jarduna Eusko Jaurlaritzak edo atxikita dagoen sailak finantza-politikari eta kreditu publikoari buruz adierazten dizkion jarraibide orokorren mende egongo da.

4. Institutuaren jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa da. Hala ere, egoitza soziala eta fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresak edo enpresa-taldeak hedatzeko edo nazioartekotzeko lurralde horretatik kanpo garatzen diren jardueretara zabaldu ahal izango du eremu hori.

3. artikulua.- Eginkizunak.

1. Finantzen Euskal Institutuak, bere helburuak lortzeko, honako eginkizun hauek bete ahal izango ditu:

a) Pertsona fisiko eta juridikoei, publiko zein pribatuei, tresnak eta finantzaketa ematea, Eusko Jaurlaritzaren sektore-politiken esparruan.

b) Pertsona fisiko eta juridikoei, publiko zein pribatuei, abalak eta bestelako kauzioak ematea edo bideratzea eta edozein motatako bermeak ematea finantza-eragiketetan, edozein dela ere horien instrumentazio-modalitatea, Eusko Jaurlaritzaren sektore-politiken esparruan.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko beste entitate batzuen sustapen-programak finantza-tresnen bidez antolatzea eta kudeatzea, horretarako sinatzen diren lankidetzahitzarmenen esparruan; besteak beste, mailegu, aurrerakin itzulgarri, abal edo bermeen bidez.

d) Finantzazkoak ez diren enpresak sustatzeko finantzaketa antolatzea, Eusko Jaurlaritzaren sektore-politiken esparruan, bai eta Euskal Autonomia Erkidegorako interes estrategikoa duten jarduerak eta inbertsioak sustatzeko eta errotzeko finantzaketa ere, haren kapitalean partaidetzak hartuz edo beste finantzazio-mota baten bidez.

e) Finantza-laguntza ematea eta fundazioaren kapitalean edo zuzkiduran eta gobernu-organoetan parte hartzea, norberaren izenean zein Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari gisa, bai eta enpresa ez-finantzarioak eta, bereziki, elkarren bermerako sozietateak, kredituko finantza-establezimenduak eta finantza-merkatuetan edo antzekoetan jarduten duten erakundeak finantzatzen edo sustatzen laguntzen duten sozietateetan, inbertsio kolektiboko erakundeetan eta fundazioetan ere.

f) Inbertsio kolektiboko erakundeen eta arrisku-kapitaleko erakunde edo funtsen kudeaketan eta gobernu-organoetan parte hartzea eta ekarpenak egitea, enpresa ez-finantzarioen finantzaketa edo sustapena errazteko.

g) Finantzen Euskal Institutuak edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateek zuzenean edo zeharka partaidetutako sozietate edo erakundeei kudeaketan eta aholkularitza teknikoan laguntzeko zerbitzuak ematea, horretarako formalizatzen diren lankidetzatresnekin bat etorritik.

h) Euskadiko finantza- eta inbertsio-sektorea bultzatzea eta indartzea, Euskadiko finantza-ekosistemako eragileen eta inbertitzaileen arteko lankidetzat sustatzea helburu duten ekimen eta jardueren bidez, eragile horiek publikoak zein pribatuak izan.

i) Finantza-arloan aholkularitza ematea eta txostenak egitea Gobernu Kontseiluarentzat edo atxikita dagoen sailarentzat, haiek eskatuta.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari izatea finantza- eta kreditu-gaietan, organo eskudunak hala esleitzen dionean.

k) Legeek eta bere estatutuek esleitzen dioten edo Gobernu Kontseiluak edo bere eskumenen esparruan atxikita dagoen sailak agintzen dion beste edozein.

2. Finantzen Euskal Institutuak, bere eginkizunak betetzean, sozietateak eratu ahal izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion finantza- eta ondare-partaidetzak taldekatzeko, Jaurlaritzak lehentasunezko irizten dion sektore edo esparru ekonomikoetan, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 56. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Finantzen Euskal Institutuak sailen elkarrizketa eta parte-hartzea ziurtatuz garatuko ditu bere eginkizunak. Sail horiek, beren eskumen eta eginkizunen arabera, politika sektorialak gidatu eta garatu behar dituzte, bai funtzio horiek gauzatzean, bai parte hartzen duten finantza-erakunde eta -tresnen gobernantzan.

4. Finantzen Euskal Institutuak kapital-sozietateak eratzeko edo haietan parte hartzeko ez ditu bete behar Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 40.4 artikuluan aurreikusitako mugak.

4. artikulua.- Gobernu-organoak eta egitura organikoa.

1. Finantzen Euskal Institutuaren gobernu-organoak Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza Nagusia dira, eta bere eginkizunen zati bat batzorde betearazle batean edo batzuetan eratu eta eskuordetu ahal izango ditu.

2. Administrazio Kontseilua Institutuaren kide anitzeko gobernu-organo gorena da, eta honako kide hauek osatuko dute: presidentea, atxikita dagoen saileko titularrak izango dena, eta sei kide, Gobernu Kontseiluak izendatuko dituenak, estatutuetan ezarritako moduan. Hala ere, estatutuetan aurreikusi ahal izango da gehienez ere zortzi bokal izatea, eta Gobernu Kontseiluari dagokio bi bokal gehigarriak izendatzea, atxikita dagoen saileko titularrak proposatuta.

3. Estatutuek eman diezazkioten ahalmenei kalterik egin gabe, Administrazio Kontseiluak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Institutuaren jarduera-ildo nagusiak urtero zehaztea, Eusko Jaurlaritzak eta atxikita dagoen sailak emandako jarraibideen arabera.
- b) Institutuaren aurrekontuaren aurreproiektua onartzea eta haren kontuen likidazioa egitea.
- c) Institutuak eman beharreko finantzaketa-lerroen, abal-lerroen eta bestelako kauzioen ezaugarriak eta baldintza orokorrak zehaztea.
- d) Institutuaren zorpetze-programa ezartzea, urteko aurrekontu-legeetan aurreikusitako mugen barruan.
- e) Edozein motatako ekarpenak egitea, merkataritza-sozietateetako, kooperatibetako, fundazioetako edo inbertsio kolektiboko erakundeetako kapitalean edo fundazio-zuzkiduran parte hartzea eta enpresa-ondarea eskuratzea eta besterentzea adostea, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen aurretiazko baimenekin.
- f) Zuzendaritza Nagusiak proposatuta, Institutuaren barne-antolaketa finkatzea eta aldatzea onartzea, bere burua antolatzeko ahala erabiliz, estatutuetan ezarritakoarekin bat etorriz.

4. Zuzendaritza Nagusia kide bakarreko organoa da, eta Institutuaren legezko ordezkari eta zuzendaritza arrunta bere gain hartzen ditu. Titularra Gobernu Kontseiluak izendatuko du, atxikita dagoen saileko titularrak proposatuta, Administrazio Kontseiluari entzun ondoren. Estatutuek eman diezazkioten edo Administrazio Kontseiluak eskuordetu diezazkiokeen ahalmenei kalterik egin gabe, Zuzendaritza Nagusiak honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Institutuaren arauak eta Administrazio Kontseiluaren erabakiak gauzatzea eta betearaztea.
- b) Gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea, bai eta kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak adjudikatzea eta baliatzea ere sektore publikoko kontratuen legeriaren edo ondare-legeriaren mendeko kontratuetan, enpresa-ondarea eskuratzea eta besterentzea izan ezik, estatutuetan ezarritako mugekin.
- c) Dagozkion finantzaketa-eragiketak, abalak eta bestelako kauzioak onartzea eta formalizatzea, estatutuetan adierazitakoaren arabera.
- d) Euskadiko Ondareari buruzko Legearen arabera Institutuari dagozkion eta berariaz beste organo bati esleituta ez dauden eskumenak baliatzea. Zehazki, Finantzen Euskal Institutuaren partaidetza duten erakundeen gobernu- eta administrazio-organoetan parte hartzea, eta erakundeon administrazioan Institutuari dagozkion bazkide- eta ordezkari- eskubideak baliatzea, estatutuetan ezarritako mugekin.
- e) Institutuaren kudeaketa eta administrazio arruntak eskatzen duen eta Administrazio Kontseiluari esleitu ez zaion beste edozein eginkizun.

5. Institutuaren eginkizunak gauzatzeko eta garatzeko egokitzat jotzen diren organo teknikoak eta aholku-organoak ezarri ahal izango dira estatutuetan. Horri dagokionez, estatutuetan batzorde betearazleak eta organo teknikoak eta aholku-emaileak ezartzea Euskal Sektore

Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 18. artikuluan aurreikusitako irizpide eta betekizunetara egokitu beharko da.

6. Administrazio Kontseiluak eta Zuzendaritza Nagusiak ahal publikoak baliatzean ematen dituzten egintzak eta ebazpenak administrazio-egintzak izango dira, eta egintza horietarako ezarritako araubide juridikoari dagozkionak izango dira haien betekizunak, eraginkortasuna eta ondorioak. Egintza eta ebazpen horiek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta administrazioarekiko auzien bidean aurkaratu ahal izango dira, hargatik eragotzi gabe aukerako berraztertze-errekurtsoa.

5. artikulua.- Estatutuak.

1. Gobernu Kontseiluak, atxikita dagoen saileko titularrak proposatuta, Finantzen Euskal Institutuaren estatutuak onartuko ditu dekretu bidez. Estatutu horiek gobernu-organoen funtzioak, osaera eta izendapena, entearen zerbitzuen egitura organikoa eta funtzionala eta funtzionamendu-araubidea garatuko dituzte.

2. Gobernu Kontseiluak onartu aurretik, estatutuen proiektuari buruzko informazioa eta kontsulta egingo zaizkio Administrazio Kontseiluari.

6. artikulua.- Langileak.

1. Finantzen Euskal Institutuaren zerbitzuko langileak horretarako kontratatutako lan-kontratuko langileak izango dira, eta lan-zuzenbidearen arabera arautuko dira.

2. Lanpostuak eskuratzeko araubidea, hautaketa-proben betekizunak eta ezaugarriak, bai eta lanpostuak hornitzeko eta lanbide-sustapenerako prozeduren deialdia, kudeaketa eta ebazpena ere, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legean xedatutakora egokituko dira, eta, betiere, Finantzen Euskal Institutuak prozeduretan parte hartuko duela bermatuko da.

7. artikulua.- Baliabide ekonomikoak.

Finantzen Euskal Institutuaren baliabide ekonomikoak honako hauek izango dira:

a) Institutuaren hasierako zuzkidura, gehi haren gizarte-funtsean gertatzen diren gehikuntzak.

b) Urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kontura ezartzen diren esleipenak.

c) Bere alde ematen diren dirulaguntzak, beste administrazio publiko batzuen ekarpenak eta dohaintzak.

d) Bere ondarean sartutako ondasun eta eskubideetatik eratorritako era guztietako diru-sarrerak eta errentak, eta bere jarduerak gauzatzetik eratorritako diru-sarrera arruntak eta ezohikoak.

e) Beste finantza-erakunde publiko edo pribatu batzuen ekarpenak, legeen arabera edo Institutuarekin egindako finantzaketa-hitzarmenen edo finantza-lankidetzako hitzarmenen bidez ezartzen direnak.

f) Errenta finkoko baloreen jaulkipenak edo bestelako zorpetze-eragiketak eta haien aktibo eta pasiboen kudeaketa integraletik eratorritako baliabideak, bereziki kredituen titulizaziotik eratorritakoak, aktiboen titulizazioari buruzko araudiaren arabera. Era berean, arestian aipatutakoez bestelako finantza-eragiketetatik datozenak, Institutuaren xedearekin bat datozenak.

g) Beste erakunde publiko batzuk eta, batzuetan, erakunde pribatuak osatzen dituzten gordailuak.

h) Kreditu-jarduera gauzatzean Finantzen Euskal Institutuarekin hartutako zorrak berreskuratzeko prozesuen ondorioz eskuratutako aktibo higigarriak.

i) Esleitu ahal zaion beste edozein baliabide.

8. artikulua.- Ondarea.

1. Institutuaren ondarea, Euskadiko ondarearen barruan, Institutuaren titulartasunekoak diren ondasun eta eskubideen multzoak osatzen du, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera.

2. Zuzenean edo zeharka parte hartzen duen sozietateetan Finantzen Euskal Institutuari dagozkion bazkide-eskubideak erabiltzea Institutuaren legezko ordezkariari dagokio, eta ez dira aplikatuko, estatutuetan ezarritako mugekin, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 111.2 artikuluan aurreikusitako xedapenak, sozietateen administrazioan bazkide eta ordezkari izateko eskubideak baliatzeari dagokionez.

9. artikulua.- Ekonomia- eta finantza-araubidea.

1. Ondare-, kontratazio-, aurrekontu-, ekonomia- eta finantza-araubidea eta kontabilitate-araubidea zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikatu beharreko lege-xedapenetan aurreikusitakoa izango da, hurrengo paragrafoetan aurreikusitako berezitasunak izan ezik.

2. Finantzen Euskal Institutuak, bere eginkizunak betetzean, honako hauek egin ahal izango ditu, aldez aurreko baimenik behar izan gabe:

a) Pertsona fisiko eta juridikoei, publiko zein pribatuei, edozein motatako maileguak, baita partaidetzakoak edo bihurgarriak ere, eta kredituak ematea edo bideratzea.

b) Pertsona fisiko eta juridikoei, publiko zein pribatuei, abalak eta bestelako kauzioak ematea edo bideratzea, eta edozein motatako bermeak ematea finantza-eragiketetan, edozein tresna-modalitate dutela ere, aurrekontuen urteko legeetan aurreikusitako muga barruan.

c) Errenta finkoko baloreen jaulkipenak eta edozein motatako zorpetze-eragiketak egitea beste finantza-erakunde publiko edo pribatu batzuekin, aurrekontuen urteko legeetan aurreikusitako muga barruan.

3. Finantzen Euskal Institutuak egiten dituen finantza-eragiketak zuzenbide pribatuko arauen eta merkatu-baldintzen mende egongo dira, eta, nolahi ere, estatu-laguntzen arloko Europako araudia errespetatu beharko dute.

4. Aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe, Finantzen Euskal Institutuak mailegu hobaridunak eman ahal izango ditu, interesik gabekoak, merkatukoa baino interes txikiagoak edo zati ez-itzulgarri batekoak, baldin eta hobari hori Euskadiko Aurrekontu Orokorren zuzkiduren kargura finantzatzen bada, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitate batek sustaturiko sustapen-programa baten esparruan, Institutuaren eta entitate horretako organo eskudunaren artean formalizatutako hitzarmen baten bidez. Horretarako, mailegu horiek emateko araudi erregulazaitzat hartuko dira Institutuaren administrazio-kontseiluak hartutako erabakiak, eta, nolahi ere, deialdi bat aurreikusi beharko dute onuradunen betekizun eta betebeharrekin eta emateko prozedurarekin, publikotasun-, gardentasun-, lehia-, objektibotasun-, berdintasun- eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatuz, bai eta estatu-laguntzen arloko Europako araudia ere, hori guztia formalizatutako hitzarmenean ezarritakoaren arabera. Deialdia eta lankidetzak-hitzarmena, non deialdiaren oinarri arautzaileak ezarri beharko diren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

5. Finantzen Euskal Institutuaren ondare-betebeharrekin Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren bermea izango dute, Ogasun Nagusiaren baldintza berberetan.

6. Kontrol ekonomikoa kontrol ekonomiko-finantzarioaren eta kudeaketa-kontrolaren modalitatean gauzatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginean (urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokionean ezarritakoarekin bat etorritik.

10. artikulua.- Azkentzea eta likidazioa.

Finantzen Euskal Institutua lege-mailako arau baten bidez azkenduko da. Arau horrek entitatearen likidazioa aurreikusi beharko du, bai eta Institutuaren zerbitzura dauden langileak eta haien ondasun, eskubide eta betebeharrak subrogatzeko baldintzak ere, Institutuaren izaera duten entitateentzat aurreikusitako arau-xedapenen arabera.

Xedapen gehigarri bakarra.- Entitatearen berregituraketak.

Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez, Finantzen Euskal Institutuaren berregituraketak egin ahal izango dira, baldin eta lege honetan ezarritako legezko izaera eta helburuak aldatzen ez badituzte.

Xedapen indargabetzaile bakarra.-

Indargabetuta geratzen dira lege honetan aurreikusitakoaren aurka doazen xedapen guztiak eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko 2008. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 28ko 15/2007 Legearen zazpigarren xedapen gehigarria.

Azken xedapenetatik lehenengoa. - Estatutuak onartzea.

1. Lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko epean, Gobernu Kontseiluak Finantzen Euskal Institutuaren estatutuak onartuko ditu dekretu bidez, atxikita dagoen saileko titularrak proposatuta.

2. Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa betetzen ez den bitartean, indarrean jarraituko dute abenduaren 23ko 218/2008 Dekretuaren bidez onartutako Finantzen Euskal Institutuaren estatutuek, betiere lege honetan aurreikusitakoaren aurka ez badoaz.

Azken xedapenetatik bigarrena. - Indarrean jartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Igor bekio Gobernu Kontseiluari

Ekonomia eta Ogasun sailburua / Consejero de Economía y Hacienda
PEDRO MARIA AZPIAZU URIARTE